

DIRU-ITURRIAK

Plangintza guzti hau aurrera eraman ahal izateko hainbat esparru hartu behar dira kontutan. Elkarteko kideek, hau da, guk, hasiera batean ekarpen bat egingo genuen gure poltsikotik eta ostean ekarpen horren proportzio berean banatuko ditugu irabaziak.

Horretaz gain, banku etikoekin kontaktuan jarriko gara. Banku etikoak pertsona orok krediturik lortzeko duen eskubide unibertsala ahalbidetzea du helburu, arreta berezia eskainiz ohiko bankuetan krediturik jasoko ez luketen kasuetan. Azken batean, gizartean eragin onuragarria izango duten jarduera ekonomikoak finantzatzean datza asmoa; hau da, baztertutako pertsonaren egoera eta inguramenean ondorio positiboak izango dituzten ekintzak bultzatzea. Horregatik, hauek diru laguntzak emateko ere eta guzti hau batuz aurrera eraman ahalko genuke gure harrera plana.

Azken finean, gure web gunea eta udaletxeekin, erakunde publiko zein pribatuekin kontaktuan jartzeko mugikorra erosteko dirua beharko genukeen, ez horretarako soilik, baizik eta gure erakundearen inguruan publizitatea egiteko... Publizitate horrek kostu ezberdinak ditu, paperean ateratakoa edo sare sozialetan itsatsitako izan daitekeelako. Gastu guzti horiek betetzeko, hasieran esan dugun bezala, banku etikoekin jarriko ginen kontaktuan, enpresa pribatuekin, diputazioarekin... Ostean irabaziak daudenean, gastu horiek eta gure soldata ahalko ordaindu ahalko genuen.

Konkretuki, web-guneak 25€-ko kostua izango zuen urtean, web-gunea eramango duen pertsonaren soldata 150€, mugikorraren kostua 150€, ordenagailuarena 400€ eta publizitatearen kostua, bai paperean eta bai sare sozialetan itsastea 0€.